



# ENPLEGUAREN GAINEKO IKUSPEGI SEKTORIALAK EUSKAL EKONOMIAN

2015eko otsaila



- EAEko jarduera ekonomikoak eta enplegua sortzeko eta suntsitzeko dinamikak izan berri duten bilakaeraren azterketa.
- Herritarren enpleguek eta kualifikazio-mailek izan duten bilakaeraren gaineko begiratu bat barne hartuta.
- Enpleguaren inguruko epe ertaineko eta luzeko aurreikuspenen analisia.
- EAEko potentzialitateen eta sektore estrategiko eta gorakorren identifikazioa.
- Europako enpleguaren eboluzioa baldintzatzen duten joerak eta garatzeko aukera duten sektoreak.



1. Iraganari begiratu bat: nola irteten ari gara krisialditik? .....5
2. Etorkizunari begiratu bat: aukerak eta aurreikuspenak epe ertainera eta luzera, sektorearen, enpleguaren eta kualifikazioaren arabera .....11
3. Ondorioak .....15

1

IRAGANARI BEGIRATU BAT:  
NOLA IRTETEN ARI GARA  
KRISIALDITIK?



# 1. Iraganari begiratu bat: nola irteten ari gara krisialditik?

Sektorekako begiratura: sektore ahulak eta sektore sendoak

• Ekonomiaren tertziarizazioa, baina banalerro gero eta lausoagoak



- Industria-sektorean, enplegua eta BEGd-ari egindako ekarpena jaitsi egin dira, baina euskal ekonomiak europarrak baino profil industrialagoari eutsi dio, eta espezializazio handia du.
- Gero eta jarduera gehiago kanporatzen denez, industriaren eta zerbitzuen arteko bereizketa lausotu egin da.
- Industriak aldi baterako enplegu-etendura erabili du krisiari aurre egiteko, eta ez enplegu-iraungipena.
- Krisiaren eraginik nabarmenena jasan duten adarrak honako hauek dira: jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza, zurgintza, papera eta arte grafikoak eta kautxua.
- Metalgintza, produktu metalikoak, makineria eta ekipamendua eta antzeko sektoreek ere enplegu asko galdu dute.

• Zerbitzuen barruan, jokaera desberdina izan da



- Merkatukoak ez diren zerbitzuek hobeto egin diote aurre krisiari, BEGd-ari ekarpen handiagoa egin diote eta enpleguaren bilakaera positiboa izan dute.
- Merkatuko zerbitzuek ere handitu dute BEGd-ari egindako ekarpena, neurri txikiagoan, baina enplegua galdu dute.
- Enpleguaren aldetik, hauek izan dira adarrak kaltetuenak: higiezinaren jarduerak, merkataritza eta ostalaritza.
- Beste hauek enpleguaren bilakaera positiboa izan dute: hezkuntzak, osasunak eta gizarte-zerbitzuek, hain zuzen.



# 1. Iraganari begiratu bat: nola irteten ari gara krisialditik?

Prestakuntza-maila handiak, eta gabeziak bitarteko mailan.

## • Kualifikazio-maila handia



- Biztanleriak, oro har, eta biztanleria okupatuak kualifikazio-maila ona du.
- Krisialdian hobera egin du kualifikazio-mailak.
- Hirugarren sektoreko ikasketek presentzia handia dute.

## • Gabeziak bitarteko mailetan




- Prestakuntza-mailen polarizazioa gertatu da.
- Bitarteko kualifikazio-mailek presentzia txikiagoa dute.
- Batxilergoa nagusi da oraindik Lanbide Heziketaren aldean, baina biak orekatzeko joera dago, motela baina gero eta handiagoa.

Kualifikazio-piramideen konparazioa: Euskadiko 2010ekoa eta Europako 2020rako EB27 eredua

INSN mailak (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua):  
 0-2: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH  
 3-4: Batxilergoa, erdi-mailako prestakuntza zikloak eta JLPPak  
 5-6: Goi-mailako hezkuntza (lehen zikloa eta bigarren zikloa)  
 Iturria: Lanbide Heziketako III. Euskal Plana

25-64 urte




# 2


ETORKIZUNARI BEGIRATU BAT:  
AUKERAK ETA AURREIKUSPENAK EPE  
ERTAINERA ETA LUZERA,  
SEKTOREAREN, ENPLEGUAREN ETA  
KUALIFIKAZIOAREN ARABERA

### DEMOGRAFIA: gutxiago gara lan egiteko

EAEn aurreikusitako biztanleria-piramidearen bilakaera. 2014-2025



EAEko biztanleria osoaren aldakuntza, adin-taldearen arabera. 2014-2025  
adin-taldearen araberrako aldakuntza (%)







### Datorren hamarkadako hazkunde-ahalmenik handieneko sektoreak Europan

		ziurgabetasuna	
		Handia	Txikia
Etorkizuneko hazkunde-tasa	Handia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Farmazia-produktuak</li> <li>• Ingeniaritza mekanikoa</li> <li>• Motor-ibilgailuak</li> <li>• Eraikuntza</li> <li>• Banaketa</li> <li>• Ostalaritza eta cateringa</li> <li>• Lurreko garraioa</li> <li>• Aireko garraioa</li> <li>• Aseguruak</li> <li>• Hezkuntza</li> <li>• Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzukoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ur-hornikuntza</li> <li>• Txikizkako merkataritza</li> <li>• Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa</li> <li>• Informazioa eta komunikazioak</li> <li>• Banku- eta finantza-jarduerak</li> <li>• Informatika-zerbitzuak</li> <li>• Jarduera profesionalak</li> <li>• Beste jarduera profesional batzuk</li> <li>• Beste zerbitzu batzuk</li> <li>• Manufaktura-industriak (beste leku batean sailkatu gabeak)</li> </ul>
	Txikia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Petrolioia eta gas naturala</li> <li>• Elikagaiak, edariak eta tabakoa</li> <li>• Zura era papera</li> <li>• Arte grafikoak eta edizioa</li> <li>• Produktu kimikoak (beste leku batean sailkatu gabeak)</li> <li>• Kautxuzko eta plastikozko produktuak</li> <li>• Produktu mineral ez-metalikoak</li> <li>• Burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuak</li> <li>• Material eta ekipamendu elektrikoa</li> <li>• Energia elektrikoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza</li> <li>• Harrikeria-erazketa</li> <li>• Beste erazketa-industria batzuk</li> <li>• Ehunak, jantziak eta larrukiak</li> <li>• Manufaktura-erregaiak</li> <li>• Produktu metalikoak</li> <li>• Produktu elektronikoak</li> <li>• Beste garraio-material batzuk</li> <li>• Gas-hornikuntza</li> <li>• Administrazio publikoa eta defentsa</li> </ul>




## 2. Etorkizunari begiratu bat

ENPLEGU AUKERAK: enplegu-sorrera garbia apala izango da, baina erretiroa dela-eta aukera handiak egongo dira

EAEko enplegu-aukeren estimazioa 2014-2024 aldirako

	Enplegu-aukeren estimazioa (kopurua)
Hedapen-eskaria	35.686
Ordezkapen-eskaria	266.398
Enplegu-aukerak guztira	302.084


Enplegu-sorrera garbiaren eta erretiroko irteeren estimazioa EAEn, lanbide-familiaren arabera (Urteko %-a lanbide-familia bakoitzeko enpleguan. 2014-2024





### Irteerak erretiroetatik eta enplegu-sorrera, lanbide-adarraren arabera (batez bestekoa baino hazkunde handiagoa)

Irteerak erretiroetatik eta enplegu-sorrera, batez bestekoa baino enplegu-hazkunde handiagoa duten lanbide-familietan. Urteko %-a gaur egun dagoen enpleguaren aldean



Kontrastea: enplegu garbiaren sorrera-aurreikuspenak datozen urteetarako eta ikasle kopuruaren eboluzioa iragan hurbilean EAEn lanbide-familia bakoitzean

Lanbide-familia	Ikasleen aldakuntza -tasa	LHko plaza-eskaintza mila soldatapeko 2011n lanbide-familia bakoitzean
Kirol-ekintza fisikoak	59,4	29
Arte grafikoak	-27,7	18
Merkataritza eta marketina	-20,9	2
Komunikazioa, irudia eta soinua	-7,3	15
Eraikuntza eta obra zibila	9,6	9
Fabrikazio mekanikoa	-24,6	12
Informatika eta telekomunikazioak	-43,6	53
Garraioa eta ibilgailu-mantentzea	12,3	14
Mantentze-lanak eta produkzio-zerbitzuak	16,2	41
Kimika	-43,1	3
Øsasuna	23,5	13
Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatekoak	81,4	6
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	38,5	3
Irudi pertsonala	-0,9	17
Østalaritza eta turismoa	-16,8	5



### ENPLEGUA SORTZEKO AHALMENIK HANDIENA DUTEN SEKTOREAK

#### MANUFATURA AURRERATUA

- Enplegu-galera kualifikazio txikiko langileen artean.
- Kualifikazio handiko teknikarien premia gero eta handiagoa.
- Produkzioaren digitalizazioa → ↓ deslokalizazioa.
- Diziplina anitzeko gaitasunak, teknikoak, komertzialak eta gestiokoak.
- Azken teknologietan gaitasunak dituzten langile-eskaintza handiagoa.
- Zientzietan eta ingeniaritzan graduatu gehiago, baina espezializatu gutxi.

#### AUTOMOZIOA ETA IBILGAILU GARBIAK

- Kualifikazio handiko lanpostuak sortuko dira ikerkuntzan eta garapenean (I+G), diseinuan eta goi-mailako lanpostuak fabrikazio-prozesuan.
- Eskaintza: material-zientzialariak; informatika-analistak; ingeniari kimikoak, elektrikoak, industrialak, materialen arlokoak eta mekanikoak.
- Hauek behar dira: ingeniaritza eta zientzia, matematika, konputazio-zientziak eta horiek betetzeko graduatuak eta graduondokoak.

#### ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

- Enplegua balio-kate osoan hedatuko da.
- Enplegu-hazkundera politika nazionalari lotuta dago.
- Ez da eskatuko birkualifikazio zabala → prestakuntza egituratua.
- Eskasia dago okupazio teknikoetan, salmentetan, espezialista juridikoetan eta abar.



### ENPLEGUA SORTZEKO AHALMENIK HANDIENA DUTEN SEKTOREAK

#### LANBIDE ETA ENPRESA ZERBITZUAK

- Litekeena da zuzendaritza-pertsonala murriztea.
- Gero eta lehia handiagoa nazioartean.
- Bezeroari arreta emateko kualifikazio gutxiko profilak zaharkiturik daude.
- Teknologia berriek inpaktua dute enpleguan.
- Sormena, pentsamendu kritikoa eta gaitasun analitikoak eskatzen dira.
- Gaitasun-profil berriak: produktu eta zerbitzu berriak.
- Ingurunean gero eta handiagoa da ziurgabetasuna eta informazio-kantitate handia dago.

#### OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

- Etxeko arreta- eta telelaguntza-zerbitzu gehiago eskatuko dira.
- Prebentziozko medikuntzaren eta medikuntza alternatiboaren alorreko langile-eskaria handitu egingo da.
- Osasunari eta kirolari lotutako lanpostu gehiago.
- Datu-analisen inguruko lanpostu gehiago.
- Teknologiarako joera handiagoa.
- Graduondoa eta diziplina anitzeko gaitasunak dituzten pertsonak eskatuko dira.
- Medikuntza pertsonalizatua → gaitasun berriak prebentzioan, diagnostikoan...
- Urruneko osasun-laguntza errazteko gestio-gaitasuna.
- Teknologia aurreratuaren erabilera handitu egingo da gizarte-arretako profesionalen artean (robotak).
- Gizarte- eta jokabide-gaitasunak eta gaitasun teknikoak ikasteko eskari handia dago.



### ENPLEGUA SORTZEKO AHALMENIK HANDIENA DUTEN SEKTOREAK

#### TXIKIZKAKO MERKATARITZA ETA LOGISTIKA

- Ohiko saltzaile-eskaria jaitsi egingo da, erosketa pertsonalizatuan esperientzia eta lehenetsunean eta kontsumoari buruzko datuak erabiltzea eskatuko da.
- Internet → banaketako eta logistiko langile gehiago eta programatzaile eta datu-analista gehiago eskatuko dira.
- Kontsumo berdea, produktu ekologikoak, prestatutako langile-eskaria.
- Gaitasun teknologikoak eta bezeroentzako arreta indartu behar dira.

#### SORKUNTZA SEKTOREA ETA SEKTORE DIGITALA

- IKTen erabilera -> langileen arteko lehia nazioartean.
- Gero eta langile autonomo eta proiektu-kontratu gehiago.
- Gaitasun generikoen (programazioa) eta espezifikoaren eskaria handitu egingo da.
- Zibersegurtasuneko eta auzitegi-informatikako gaitasunak dituzten profilen beharra handitzen ari da.
- Diziplina-aniztasuna eskatzen da.
- Ekintzailtza eta autogestioa bezalako gaitasunen beharra handitzen ari da.

3

ONDORIOAK



- EKONOMIAREN TERTZIARIZAZIOA, SEKTORE ARTEKO BANALERRO LAUSOAK.
- AUKERAK: AZKEN ESKARIAREN HURBILEKO ZERBITZUAK.
- AUKERAK: EZAGUTZARI ETA IRAUNKORTASUNARI LOTUTAKO INDUSTRIA.
- ERRUTINAZKO LAN GUTXIAGO, PROFIL ERTAIN-TXIKIKO HUTSUNEAK BETETZEKO BEHARRA.
- EMAKUME GEHIAGO HEZKUNTZA TERTZIARIOAREKIN, TALDE MISTOAK INDUSTRIAN.
- GAINKUALIFIKAZIOA: AURRE EGIN BEHAR ZAION EGITURAZKO ARAZOA.
- ENPRESEN BEHARRAK AURREIKUSI EGIN BEHAR DIRA.
- ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: HOBEKUNTZAK IRISMENEAN, DIMENTSIONAN ETA FORMATUAN.
- BIZTANLERIA AKTIBOA MURRIZTEA: ERRONKA HANDIA HAUTATZEKO ETA EUSTEKO.
- ADINAREN GESTIOA PLANTILLETAN: KONPONDU BEHARREKO GAIA EUSKADIN.



Eskerrik asko